

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

116/2026 Foru Agindua, maiatzaren 12koa. Ebaztea Nafarretoko herriarena den (Urrunagako Administrazio Batzarra) eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" mendi publikoaren mugaketa eta mugarritze espedientea

Mendi Zerbitzuak Legutioko udalerrian kokatuta dagoen eta Nafarretoko herriarena den "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko onura publikoko mendiaren mugaketa eta mugarritzea egin du, Urrunagako administrazio batzarrak (Nafarretoko herri zaharraren ordezkartzean) hala eskatuta.

Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik bideratu da espedientea eta, aldi berean, modu osagarrian, otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onetsitako Mendiei buruzko Arautegian –Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. puntua eta apirilaren 28ko 10/2006 Legea eta uztailaren 20ko 21/2015 Legea oinarritzat hartuta dago indarrean– xedatutakoarekin bat etorritik.

1853ko apirilaren 19ko "Apeo, deslinde y reconocimientos, hechos por la Inspectoría de Montes de los distintos distritos de la provincia de Álava, de los montes y prados que tienen en común los pueblos de dichos distritos" izeneko dokumentuan, "Monte Jaral titulado Ilguren de la propiedad exclusiva del pueblo de Nafarrate" ageri da. Dokumentu horren arabera, aipatutako Ilguren mendiak 20 anega inguru zuen.

1958ko maiatzaren 2ko "Inventarios del pueblo de Nafarrate" dokumentuan, "Ilguren, Arkañetu y Sarasain" herri mendia agertzen da, 12 hektareako azalerakoa.

Aipatutako Mendiei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, 1995eko irailaren 1eko ALHAOn (104. zk.) Diputatuen Kontseiluaren 1995eko abuztuaren 16ko 645/1995 Erabakia argitaratu zen, zeinaren bidez Nafarretoko herriarena (Urrunagako Administrazio Batzarra) den eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko mendi publikoa mugaketa egoeran zegoela adierazi zen. Erabaki hori interesdun ezagunei, fisikoak edo juridikoak izan, jakinarazi zitzaizkien, hartu agiridun gutun baten bidez. Mugaketa prozedura 646/92 espedientearen barruan hasi zen.

Neurketa lanak egun hauetan egin ziren: 2000ko apirilaren 4an eta 17an, maiatzaren 5ean, 19an, 23an eta 24an, abuztuaren 24an eta irailaren 28an eta 2004ko martxoaren 23an, eta hala jasotzen da horri buruz egindako aktetan. Neurketa eta mugarritze lanak amaituta, ALHAOn argitaratu zen 2004ko maiatzaren 17an (55. zk.) mugaketa eta mugarritze espedientea jendaurrean jartzen hasi zela eta erreklamazio aldia ireki zela. Iragarki hori interesdun ezagunei, fisikoak edo juridikoak izan, jakinarazi zitzaizkien, hartu agiridun gutun baten bidez.

Erreklamazio aldi horretan, idatzizko erreklamazio bat aurkeztu zen.

Mugaketa eta mugarritzea ez ziren horretarako zegokion epean onetsi; beraz, 2025eko otsailaren 12ko 45/2025 Foru Aginduaren bidez, prozedura iraungitzat jo zen.

36/25 espediente honen barruan, 2025eko otsailaren 21eko ALHAOn (21. zk.) 2025eko otsailaren 14ko 50/2025 Foru Agindua argitaratuta, xedatu zen hasiera ematea Nafarretoko herriarena den eta Legutioko udalerrian kokatuta dagoen "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko mendi publikoa mugatzeko eta mugarritzeko prozedurari, bai eta iraungitako prozeduratik kanpoko egintzak sartzeko ere, hala nola interesdunek aurkeztutako dokumentazioa, legezkiekeen eskubideak egiaztatzeko; lur neurketen aktak; mugaketaren plano topografikoak; eta aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio aldian jarritako erreklamazioa ebazteko, 2025eko martxoaren 12an lur neurketa osagarri bat egin zen Legutioko udalerriko 1 poligonoko 823, 824, 825, 826, 827, 828, 834 eta 1.399 katastro lurzatien mugan.

2025eko ekainaren 18an, ALHAOn (68. zk.) argitaratu zen 36/25 espediente hau jendaurrean jarri zela, Urrunagako Administrazio Batzarraren bulegoetan, hamabost eguneko epean interesdunek aztertu zezaten eta hogeita hamar eguneko epean erreklamazioak onar zitezten. Epe horiek iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasi ziren, eta horren testua interesdun ezagunei jakinarazi zitzaizen bide elektronikoz eta hartu agiridun gutun bidez.

Ikustaldi- eta alegazio-aldi horretan, erreklamazio bat aurkeztu zuen E. V. G.d. M.k Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean, 2025eko uztailaren 31n (sarrera zenbakia: 5766). Horren bidez, mugak eta kartografia zuzentzeko eskatzen zuen, eta adierazten zuen Legutioko 1 poligonoko 835 lurzatiak mendi publikoarekin egiten duela muga, eta ez 1 poligonoko 1399 lurzatiarekin.

2025eko azaroaren 7an, Urrunagako Administrazio Batzarrari Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako erreklamazioari buruz egindako txosten juridikoa helarazi zitzaion. Txosten horretan ondorioztatzen denez, erreklamazioa ezetsi egin behar da, bi lurzati pribaturen mugei buruzko eztabaida zibila baita.

2025eko azaroaren 26an, Urrunagako Administrazio Batzarrak Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari jakinarazi zion ez zituela onartu erreklamazioaren asmoak.

2026ko maiatzaren 8an, lan horietan jardun zuen ingeniariak mugaketa eta mugarritze espedientearen ebazpen proposamena jasotzen duen txostena helarazi zion Mendi Zerbitzuaren buruari.

Ikusi eta aztertu dira 36/25 espedientearen jasotako txostenak, neurketen buruzko aktak, planoak, erregistro topografikoak eta agiriak, eta Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan xedatutakoa hartu da kontuan.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiaren sailak 2023-2027 legegintzaldirako finkatzen dituen eta Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatu zuen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren xedapen zatitik hamargarrena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onets daitezela Legutioko udalerrian kokatuta dagoen eta Nafarreteko herriena den (Urrunagako administrazio batzarraren barruan gaur egun) "Ilguren-Arkañetu-Sarasain" izeneko onura publikoko mendiaren mugaketa eta mugarritzea, 36/25 espedientearen agertzen diren akten, erregistro topografikoaren, txostenen eta planoaren arabera. Honela geratzen den mendiaren deskribapena:

- Izena: Ilguren-Arkañetu-Sarasain.
- Udalerria: Legutio, Zigoitia eta Arratzua-Ubarrundia.
- Nafarreteko herriarena (gaur egun Urrunagako Administrazio Batzarraren barruan dago).
- Onura publikoko mendiaren gutzitako edukiera: 51 hektarea, 24 area eta 86 zentiaera (512.486 m²).
- Espeziea: Erkametzta - *Quercus faginea* (Lam.).

– Tarteak: Nagusia, A eta B:

•Tarte nagusia:

– Tarte nagusiaren azalera: 48 hektarea, 36 area eta 95 zentiarea (483.695 m²).

– Tarte nagusiaren mugak:

Iparraldean: jabetza pribatuak.

Ekialdean: Urrunagako urtegia, jabetza pribatuak eta Letxaboste mendi publikoa, Nafarrete herriarena (gaur egun Urrunagako Administrazio Batzarraren barruan dago).

Hegoaldean: jabetza pribatuak eta onura publikoko 656-1 Isasi de Nafarrate mendia (Isasiko erkidegoaren zatiketarik dator), Nafarrete herriarena (gaur egun Urrunagako Administrazio Batzarraren barruan dago).

Mendebaldean: Buruaga eta Eribeko herrien jabetza pribatuak eta mendiak.

• A tarteak:

– A tartearen azalera: 76 area eta 28 zentiarea (7.628 m²).

– A tartearen mugak:

Iparraldean: jabetza pribatuak.

Ekialdean: jabetza pribatuak.

Hegoaldean: jabetza pribatuak.

Mendebaldean: Buruaga eta Eribeko herrien mendiak.

• B tarteak:

– B tartearen azalera: 2 hektarea, 11 area eta 63 zentiarea (21.163 m²).

– B tartearen mugak:

Iparraldean: jabetza pribatuak.

Ekialdean: jabetza pribatuak.

Hegoaldean: onura publikoko 656-1 Isasi de Nafarrate mendia (Isasiko erkidegoaren zatiketarik dator), Nafarrete herriarena (gaur egun Urrunagako Administrazio Batzarraren barruan dago).

Mendebaldean: onura publikoko 656-1 Isasi de Nafarrate mendia (Isasiko erkidegoaren zatiketarik dator), Nafarrete herriarena (gaur egun Urrunagako Administrazio Batzarraren barruan dago).

Bigarrena. Administrazio bidea amaitutzat ematea eta bide judicial zibila irekitzat.

Hirugarrena. Mendiaren deskribapenean jasotzen diren datu berriak Landa Katastrora eman eta Jabetza Erregistroan mendia immatrikulatu dadila.

Laugarrena. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaraztea.

Seigarrena. Ebazpen horren aurka, zeinak administrazio bidea amaituko baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Vitoria-Gasteizko epaitegietan. Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera konstatuta, lehena aurkezteko hilabete izango da eta bigarrena aurkezteko, bi hilabete.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 12a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA